

TOLOSA / 'Biblioteca en guerra' erakusketa ibiltaria iritsi da Aranburu jauregia

Errepublika garaian liburutegien inguruan eginiko lana islatzen du; urriaren 3ra arte izango da ikusgai.

IÑIGO TERRADILLOS

Beste hamar hiritan ikusgai izan eta gero, Tolosara ekarri dute Biblioteca en guerra erakusketa ibiltaria. Tolosako Udal Liburutegiaren ekimenez, urriaren 3ra arte izango da ikusgai Aranburu jauregian, 41 panel eta dokumental batez osaturiko lana.

Gerra Zibilaren 70. urtemugaren harira sorturiko erakusketa da ikusgai dagoena. Hain zuzen ere, Madrilgo Liburutegi Nazionalak egin zuen 2005ean, baina Aranburun dagoena lan haren bertsio ibiltari eta laburtua da. Erakusketa honen bidez, Errepublikaren garaian, eta 1936tik 1939ra bitarte, liburutegiek jaso zuten bultzada eta hainbat elkarte, liburuzain eta erakundek egindako lana erakutsi nahi da. Halaber, garai hartako espiritua berreskuratu nahi du, hau da, irakurketa, liburua eta liburutegia aldaketa soziala motortzat jo zituen espiritu hura.

Ahazturikoak gogoan

Hala, 41 panel hauen bidez, erakusketa ikustera joaten denak garai hartako historia eta hainbatek egin zuen lanaren berri izan dezake. Argitaratzen ziren liburu eta egunkarien berri ematen du, liburutegiak sustatzen eta, oro har, herritarren artean kultura ezagutarazten zuen eta egun ahazturik dauden pertsonaien inguruko informazioa dago, eta baita ekintza hauek guztiak gauzatzeko zituzten zailtasunen ingurukoak ere.

Bestetik 36 minutuko iraupena duen ikus-entzunezkoa ere ikus dezake erakusketa bisitatzera doanak. Iñigo Salaberriak egin eta Madrilgo Liburutegi Nazionalak ekoiztu zuen hau, eta gidoia Blanca Calvo eta Ramon Salaberriarena da. Egileak aipatzen duen bezala, Liburutegi Nazionalako lehendakariaren eskutik iritsi zitzaidan lan hau egiteko ardura; erakusketa hobe ulertzeko modua da, garai hartako protagonisten lekukotzak jasotzen baitu, eta historiaren errepasua ere egiten du. Interneten youtube atarian ikus daiteke ondorengo helbidean:
<http://www.youtube.com/watch?v=7twyQ4SqND0>.

Panelak eta dokumentalarekin batera, gaiari lotutako liburuen erakusketa ere jarri dute Aranburu jauregian, eta urritik aurrera maileguan eraman ahal izango dira.

Arrasate eta Ermuarekin batera egin duten elkarlanari esker iritsi da Tolosara erakusketa. Arratsalde, 17:30etik 20:30era bisitatu ahalko da, eta hala eskatuz gero, eskola bisitak ere egin ahalko dira, goizez.

DATUAK

Erakusketa. 'Biblioteca en guerra'.

Lekua. Aranburu jauregian.

Noiz. Urriaren 3ra arte.

Ordutegia. 17:30etik 20:30era.

Edukia. 41 panel eta ikus-entzunezkoaren bidez, Errepublika garaian eta 36tik 39ra liburutegien inguruan eginiko lana islatzen du. Iñigo Salaberria da dokumentalaren egilea.